2008-XII-05
Número **261.** zenbakia

ELA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Atzera gabe

**Ez dago atseden luzea hartzerik. Gure hamabigarren Kongresua bukatu berri da eta bertan hartutako erabakiei erreparatu behar diegu lasai eta sakontasunez, horiek betetze aldera eman beharreko urratsak behar bezala gauzatzeko. Lehendabizi, agurra Joxeri eta ongietorria idazkari nagusi kargura Txikiri. Batzorde Eragilean ere idazkari nagusi-albokoa berria izendatu den Amaiari eta partaide berria den Xabiri ere onena opa diegu.**

**Aurrera begira lanak ondo planifikatu beharreko garaian, berriro ere errealitatearen gordinak Azpeitira eraman gaitu. Inongo zentzurik ez duen erailketa burutu du ETAk, oraingoan Altuna y Uria enpresako buruzagi batekin. ELAko ordezkaritza zabala eta baita ere enpresako langile asko eta asko bat etorri dira erailketa honen aurrean Inazio Uriaren senideei bere dolumina eta elkartasuna adierazterakoan. Bide batez, ELAn oso errotua dugun ETArekiko jarrera plazaratu dugu berriro, demokratikoki eta soilik bide zibiletatik lana egin nahi dugunontzat oztopoa da eta soberan dago ETA. Egun goibela benetan Azpeitian izandakoa.**

**Gure jarrerari tinko helduaz, lehendik pentsatzen genuena, atentatuaren ondoren berdin pentsatzen jarraitzen dugu eta inork ez digu aldaraziko gure pentsakerak eta jarrerak. Kalte handiak sortzen dizkigu ekintza armatuak, nagusiki aldaketa sozialaren alde lana egiten dugunoi. Horregatik, atsekabea barnean dugula, gure lanari berehala eutsi diogu. Langile klasearen egoera gogorrak –sistemaren krisiak areagotua– buruargiz eta irmotasunez aritzea exijitzen du. Gure jendea, langile jendea da krisiaren ondorioak nozitzen ari den klasea; lantokietan lehendabizi, egoeratik noiz irtengo ezjakintasunak urduritasun handia dakar eta; bigarrenez, administrazioek kudeatu beharko lituzketen politikak ez daude jende xehearengan pentsatuak, betikoen mesedetan baizik. ELAk datozen hilabeteotan egoera hau salatu eta jakinaraziko du, behar besteko ahaleginak eginez gizarteak honen berri izan dezan. Hori da gure eginkizuna, langileekin bat izatea erabaki dugulako, bere interesekin bat.**



## XII. Kongresu Konfederalean parte hartu zuten delegatuen %91,22k aldeko boza eman zion Batzorde Eragilearen hautagai-zerrendari

# ADOLFO MUÑOZ, TXIKI, IDAZKARI NAGUSIA

**ELAk azaroaren 26tik 27ra Bilboko Euskalduna Jauregian egin zuen XII. Kongresu Konfederala mugarria izan zen gure sindikatuarentzat. Azken 20 urteetan idazkari nagusi izan den Jose Elorrietaren erretiroarekin, 1976. urtean Eubako kongresuan sindikatuaren gidaritza hartu zuen belaunaldiaren azken ordezkariari agur esan zitzaion. Kongresuan parte hartu zuten delegatuek babes zabala eman zioten Batzorde Eragileak aurkeztu zuen hautagai-zerrendari. Gauzak honela, Adolfo Muñoz, *Txiki*, izango da idazkari nagusi berria, bozen %91,22 lortuta.**

Kongresuari azaroaren 26an eman zitzaion hasiera. Goizean Jose Elorrietak batzorde eragilearen kudeaketa txostena aurkeztu zuen. Elorrietak ELAk bizi duen une ona nabarmendu nahi izan zuen, eta horretarako ELAren emaitza bikainak azpimarratu zituen. "Gehiengo oso sendoa eta homogeneoa dugu Euskal Autonomia Erkidegoan; %40,28koa, hain zuzen. Nafarroan izan dugun bilakaera eta aurreratzea ere nabarmenduko nuke, ordezkaritzaren %21,46an kokatzea lortu dugularik. Guretzat emaitza hauek oso adierazgarriak dira, langileek izaera errebindikatzaile nabarmena duen sindikalgintza mota bati babesa ematen diotela agerian uzten duelako. Afiliazioan ere hazi egin gara. Aurreko kongresuan 104.695 afiliatu ginen, eta orain -irailaren 30eko datuak dira-, 109.318 afiliatu gara. Horrek 4.623ko hazkunde garbia suposatzen du, hau da, %4,42".



Elorrietaren ostean Amaia Muñoa diruzainak gehigarri ekonomikoa aurkeztu zuen. Muñoak azken lau urteetan kuoten pisua diru-sarreren osotasunean lau puntutan handitu dela nabarmendu zuen.

Batzorde Eragilearen txostena aho batez onartu zen. Lehen egunari amaiera emateko Jose Elorrietak merezitako omenaldia jaso zuen.

### BABEZ ZABALA

Bigarren egunean Adolfo Muñozek ponentzia aurkeztu zuen. Muñoz militantziari zuzendu zitzaion. "Ilusio eta grinarik gabe ez dago militantziarik. Eta hori da espreski ELAren motorra. Gure nortasun kolektiboa zehazten duten borrokak konpartitu behar ditugu eta norbanakeria baztertu; era berean besteek jasaten dituzten injustizien aurrean ezin dugu bestaldera begiratu. Gure militantzia da dugun altxorrik baliotsuena eta horregatik zaindu egin behar dugu". Horregatik besarkada zintzoa luzatu zien enpresetan sindikalgintza jorratzen dutenei. "Ez dago sindikaturik afiliaziorik gabe. Afiliazioarentzako egiten dugu lan eta berari esker gara aske hori egiteko. Indartsuagoak izateko, beraz, afiliatu gehiago izatea behar dugu".




Ponentziaren aurkezpenaren ondoren, ponentziari egindako emendakinen eztabaida gauzatu zen. Jarraian, ponentziaren testu osoaren bozketa egin zen; testua aho batez onartu zen.

Kongresuari amaiera emateko delegatuek batzorde eragile berria aukeratu zuten. Adolfo Muñoz zen nazio batzordeak idazkari nagusi izateko proposatu zuen lagun bakarra. Hau izan zen bozketaren emaitza:

**BAI 634 boz (%91,22); EZ 38 boz (%5,46);**
**ZURIAK 23 boz; BALIOGABEAK 2 boz.**

## EL NUEVO COMITÉ EJECUTIVO

**Adolfo Muñoz, *Txiki*, resultó elegido secretario general de ELA en el XII Congreso Confederal, celebrado del 26 al 27 de noviembre en Bilbao. El nuevo comité ejecutivo afronta el futuro con entusiasmo, motivación, y sabiendo que el sindicato tiene retos duros y difíciles por delante.**

**Adolfo Muñoz.** Secretario general.
**Amaia Muñoa.** Secretaria General adjunta. Tesorera. Responsable para Iparralde.
**Patxi Agirrezabala.** Comunicación.
**Alazne Alonso.** Políticas de género. Jóvenes. Salud laboral.
**Xabier Anza.** Formación sindical.
**Laura Gonzalez de Txabarri.** Relaciones internacionales.
**Txema Laiseka.** Afiliación. Elecciones sindicales.
**Mitxel Lakuntza.** Coordinación Navarra. Inmigración.
**Mikel Noval.** Política social. Gabinete de Estudios. Medioambiente.
**Leire Txakartegi.** Servicios Jurídicos. Euskara.
**Eustakio Uranga.** Organización.
**Joseba Villarreal.** Negociación Colectiva.



Amaia Muñoa

# LA ÚLTIMA CLASE DE JOSE ELORRIETA

**El XII. Congreso Confederal sirvió para despedir a Jose Elorrieta, secretario general de ELA los últimos 20 años. El acto de homenaje finalizó con un emotivo discurso por parte de Elorrieta. En la primera parte quiso agradecer a todas las personas que estos últimos años han contribuido de una manera u otra a que ELA sea el primer sindicato de Euskal Herria, sin olvidarse de su familia que tanto le ha apoyado. En la segunda parte del discurso, Elorrieta nos dejó una magnífica lección sobre el manual de ruta que ha seguido ELA durante este periodo. Varias personas que participaron en el congreso definieron a Elorrieta como un maestro del que han aprendido mucho. Esta es la última lección que nos dejó como secretario general.**




*Amigos y amigas,*

Tras casi cien años de historia y más de treinta desde el III Congreso celebrado en Euba en 1976 en ELA hemos ido concretando nuestros objetivos estratégicos definiendo tanto sus contenidos como nuestro modelo sindical y organizativo para trabajar por ellos.

Los objetivos estratégicos de ELA podríamos resumirlos en tres: dar la máxima centralidad a la negociación colectiva; trabajar por un modelo de sociedad más equitativo y solidario, y contribuir a la emancipación nacional.

Nuestro modelo sindical y organizativo se sustenta en la autonomía política y económica plena, a partir de la cual se ha ido consolidando un proyecto colectivo militante de amplia base y gran cohesión.

Desde un aprendizaje muy vinculado a la práctica, a la acción, y por aproximaciones sucesivas, hemos ido completando un "manual de ruta" en una aportación colectiva en la que han participado la tercera y la cuarta generación de ELA, es decir, la que empezó su andadura allá por los años 60 y que fue solapándose con la cuarta, que, arrancando en los 90, constituye hoy la base militante de nuestra organización para los próximos años.

Podemos decir que este manual de ruta, verde en su portada y contraportada, y plagado de subrayados en rojo en su interior, presenta a modo de lecciones quince capítulos, cinco por cada uno de los objetivos estratégicos señalados, capítulos que podemos resumir de la siguiente manera:

**PRIMER OBJETIVO ESTRATÉGICO: NEGOCIACIÓN COLECTIVA**

**1.** El neoliberalismo en su conjunto y la UE, en su ámbito regional, han decidido desregular las condiciones de trabajo, reduciendo drásticamente sus garantías y coberturas. La individualización, la precariedad y la discriminación definen el nuevo mercado laboral.

**2.** Neoliberalismo y diálogo social, en consecuencia, son incompatibles.

**3.** Para que la negociación colectiva siga siendo un instrumento central en la defensa y mejora de las condiciones laborales en general, y salariales, en particular, requiere revisar contenidos, ámbitos, formas de organización, dinámicas de trabajo e intervención.

**4.** La clave de la correlación de fuerzas para una acción sindical más potente y eficaz está en las organizaciones de base (secciones sindicales, red militante estable intercentros...).

**5.** Sólo el sindicalismo que acentúe sus perfiles reivindicativos, buscando el apoyo en la militancia, en la participación de los trabajadores y trabajadoras, tiene futuro.

**SEGUNDO OBJETIVO ESTRATÉGICO: MODELO DE SOCIEDAD**

**1.** La progresividad fiscal ha sido reemplazada por el trato discriminatorio a favor de las rentas no salariales en la recaudación de impuestos. Junto a la injusticia tributaria el efecto directo no es otro que el del recorte drástico del estado del bienestar.

**2.** La consiguiente privatización de los servicios y prestaciones públicas responde también a una opción estratégica favorable a ampliar las áreas de negocio mercantilizándolo todo sin límite ni control.

**3.** La defensa del carácter público de la sanidad, educación, dependencia, desempleo y pensiones sigue constituyendo el elemento básico de un modelo de sociedad más progresista y solidario.

**4.** El movimiento sindical debe jugar un papel activo, tanto de propuesta como de acción, en la reivindicación de una dimensión de lo público que garantice mayores niveles de equidad y bienestar para el conjunto de la población.

**5.** Es preciso trabajar desde la plena autonomía sindical por aquellas alianzas sociales y políticas plurales, abiertas y comprometidas a favor de este modelo social.

**TERCER OBJETIVO ESTRATÉGICO: SOBERANÍA NACIONAL**

**1.** Los vascos y las vascas tenemos derecho a decidir, a través de la consulta, del referendum, nuestro futuro como nación.

**2.** Ni el estado español ni el estado francés aceptan ni van a aceptar dar una salida democrática a nuestra reivindicación nacional.

**3.** Sólo un proceso civil puede concitar una suma soberanista capaz de ganar mayorías políticas y sociales a favor de la autodeterminación, posibilitando la correlación de fuerzas necesaria para plantear en condiciones una confrontación democrática con los estados respectivos.

**4.** El modelo de sociedad constituye un componente imprescindible para alcanzar esa mayoría política y social señalada a favor de la soberanía.

**5.** El protagonismo corresponde a la sociedad, y no a las elites políticas, y tanto los contenidos como los ritmos van a venir condicionados por el nivel de ilusión, compromiso y dinámica que, colectivamente, seamos capaces de conseguir.

**CUARTA GENERACIÓN**

La cuarta generación seguirá aprendiendo, matizando, corrigiendo, ampliando la hoja de ruta, siempre desde la praxis; siempre desde las aproximaciones sucesivas; siempre desde un compromiso militante colectivo hecho desde la autonomía política y económica de nuestro proyecto.

Los tiempos y las condiciones serán otros; los desafíos y las oportunidades también serán otras, pero siempre pisando tierra, como el héroe mitológico Anteo: pisando tierra somos invencibles.

Sólo sabemos que la cuarta generación es más que la tercera generación; es más abertzale; es más de izquierda; es más sindicalista, porque la praxis es determinante para ser abertzale, de izquierda y sindicalista.

La cuarta generación es también más amplia, mucho más amplia, que la tercera generación, porque también en la praxis hemos acumulado más militancia.

La cuarta generación, además, es más organizada. La razón, igualmente, estriba en la progresiva adecuación de nuestros métodos de trabajo, en concordancia con la praxis, con la exigencia de ganar en eficacia, en capacidad de respuesta.

Tengo la plena seguridad de que mañana la nueva lista del Comité Ejecutivo va a tener un respaldo rotundo, porque es un colectivo con una trayectoria contrastada, con una experiencia ya muy trabada en el trabajo colectivo, y con un secretario general, Adolfo Muñoz, *Txiki*, que tiene una larga trayectoria –ya estuvo, por ejemplo, en el III Congreso de Euba en el año 76-; tiene una gran experiencia, porque ha sido, además de militante de una empresa del metal, responsable territorial de la federación de Servicios Públicos, responsable de la comarcal de Gasteiz, secretario general del Metal y miembro, desde hace cuatro años, del Comité Ejecutivo como responsable de negociación colectiva en la primera parte del periodo y como secretario general adjunto en el último año. Tiene, además de todo, mucho temple.

Amigos y amigas, os veo en plena forma. Cuidad siempre, por encima de todo, la fidelidad a la clase trabajadora. Cuidad, también, que vuestro proyecto tenga la máxima cohesión interna. Si pecáis de algo, pecad de audaces y no de realistas, porque sin utopía no tenemos futuro. Recordad que sólo se aprende a la intemperie.

Amigos y amigas, os quiero mucho y por eso mi último consejo es que os cuidéis también a vosotras y vosotros mismos. La militancia sindical es dura y larga, y a un sindicalista que sólo es sindicalista le falta algo, y por tanto, por mucho que se esfuerce, por mucho que sufra, no será un buen sindicalista.

Llegar aquí ha sido mi vocación; no he forzado la travesía, que se ha prolongado muchos años. Creo que no llego siendo viejo, pero sí rico con lo ganado en el camino.

**ELA considera que el acuedo podría haber sido mejor si los sindicatos minoritarios hubieran mantenido una posición más firme**

## IMPORTANTE ACUERDO EN COMERCIO-ALIMENTACIÓN DE BIZKAIA

El 4 de diciembre, víspera del inicio de la primera jornada de huelga convocada en el sector de comercio-alimentación de Bizkaia, la patronal Cebek ha suscrito un acuerdo con los sindicatos ELA, UGT y LAB. El acuerdo recoge una subida salarial del 5,55% para el 2008, con vigencia desde el 1 de enero, y del IPC + el 1,35% para el 2009. La reducción de jornada para este periodo será de seis horas, y las vacaciones se incrementarán en un día. Además, se establece que los supermercados cerrarán a las tres de la tarde los días 24 y 31 de diciembre, y a las seis, los hipermercados.

El pacto ha sido valorado positivamente por ELA, que cuenta con el 48% de representación en la mesa negociadora. No obstante, ELA entiende que el acuerdo se podría haber mejorado si los tres sindicatos minoritarios hubieran mantenido una posición más firme. "Habían desconvocado ya la huelga, lo que ha permitido a la patronal un mayor margen de negociación", denuncia Marige Fernandez, responsable de ELA en el sector.



**Urtarrilaren 29an Mixel Berhokoirigoin epaituko dute Baionan; ELAk bere elkartasun eta babes osoa eman nahi die bai Mixeli bai EHLGri**

## ABIAN DA LABORANTZA GANBARAREN ALDEKO SOSTENGU KANPAINA

Urtarrilaren 29an Euskal Herriko Laborantza Ganbarako presidente Mixel Berhokoirigoinen aurkako epaiketa egingo da Baionako auzitegian. Asko dago jokoan. Batetik derrigorrez bete beharko litzatekeen urtebeteko espetxe zigorra Laborantza Ganbarako presidente Mixel Berhokoirigoinentzat. Bestetik 15.000 eurotako isuna; zigor horri epaiketaren kostuak eta abar gehitu beharko litzaioke. Baina batez ere Euskal Herriko Laborantza Ganbararen disoluzioa dago jokoan.

Abenduaren 11n, osteguna, Mixel Berhokoirigoinek *Euskal Herriko Laborantza Ganbera: zer da estatuak debekatu nahi duen elkarte hori?* hitzaldia eskainiko du Andoainen, Martin Ugalde Foroak antolatutako ekitaldian. Hitzaldia 19:00tan hasiko da, Martin Ugalde Kultur Parkean. 2009ko urtarrilaren 8an, osteguna, Mixel Berhokoirigoinek beste hitzaldi bat eskainiko du Bilboko Kafe Antzokian.

Egoeraren larritasunaren aurrean hainbat erakundek mobilizazio kanpaina abian jarri dute, EHLGri sostengua eta babesa eman asmoz. Manu Robles-Arangiz Fundazioak Iparraldean duen arduradun Txetx Etcheberryk mobilizatzearen beharra azpimarratzen du, eta Hegoaldeko lagunei ere antolatuko diren ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu nahi die. "Ezinbestekoa da mobilizatzea, ez soilik laboraria, gizarte osoa baizik. Egoera oso larria da. Ezin da bortizkeria erabiltzen ez duen elkarte garden eta demokratiko bat debekatu, ez du ez hanka ez buru".

Etcheberryk argi utzi nahi du ez dela Laborantza Ganbararen ekimena epaitzen, ez zaiola inolako deliturik leporatzen. "Bere izaera epaitzen da. Suprefetak erakunde ofizial baten izena baliatu nahi izana leporatzen dio, eta bere eginkizunaren ondorioz Paueko Nekazaritza Ganbararen jarduna bete nahi izatea. Azken finean bere ekinbidearengatik epaitzen da, eta bere deituragatik Euskal Herriko Laborantza Ganbarak Paueko Ganbararen zeregina betetzen duen ala ez. Ezin da epaiketa ulertu atzetik dituen konnotazio politikoak kontutan izan gabe".




**Gobernuak ez ditu nahi Administrazioren funtsezko arazoak aztertu**

## EUSKO JAURLARITZA SOLASKIDE SINDIKALIK GABE GERATU DA NEGOZIAZIOKO MAHAI OROKORREAN

Abenduaren 3an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Mahai Orokorraren bileran bi orduz egotea nahikoa izan zen ordezkari sindikalek handik alde egiteko, denbora horretan bertatik bertara ikusi ahal izan zutelako Gobernuko ordezkarien nagusikeria eta harrokeria.

Orain dela urtebete, ELAk eta LABek laga zuten Mahaia, negoziatzeko borondate eskasa zelakoan, eta Mahai horretan eskainitakoa Estatuaren proposamenen kalko hutsa zelakoan. Oraingo honetan, gainerako sindikatuek ere bat egin dute gurekin, eta Jaurlaritza solaskiderik gabe geratu da.

ELAren arduradun Izaskun Ganaren iritziz, "abenduaren 3an gertatukoa Gobernuak lan-harremanekin egin duenaren isla besterik ez da. Idoia Zenarruzabeitiaren taldearentzat negoziaziorik onena negoziazio-eza da. Urteak daramatzate negoziatu barik. Hitzarmenak gutxiengoan sinatuz edo dekretu bidez ezarriz nagusitu izan dira azken urteetan".

Orain, sua piztu duen txinparta negoziazio kolektiborako eskubidea urratu nahi izatea izan da, Aurrekontu Legean artikulu bat sartuz, lanaldiaren alderdi bat arautzeko asmoz. "Gobernuak ez ditu onartu nahi sei egunen aldeko epaiak, eta negoziatzeko gai ez direnez, bide-zidorretik abiatu dira". ELAk artikulu hori Aurrekontu Legetik kentzeko eskatu du, eta Gobernuak hiru ezetz eman ditu: "kendu ahal ez, kendu nahi ez, kendu behar ez". Izaskun Ganak dioenez, "egoera ikusirik mahaitik jaiki gara, negoziatzeko benetako borondaterik ez dagoela ikustean".



Izaskun Ganaren ustez larria da, baita ere, Administrazioaren funtsezko arazoak Gobernuak aztertu nahi ez izatea. Hor dauzkagu bitarteko langileen tasa handia (%30); enplegu publikoa argaltzeko joera, agentziak eta fundazioak sorraraziz; etengabeko azpikontratazioak; eta abar.

**Calificaron de sarcasmo el acto oficial de entrega a UGT, CCOO y la CEN**

## ELA, LAB, CGT Y STEE-EILAS ENTREGAN LA MEDALLA DE ORO DE NAVARRA A MUJERES, JÓVENES E INMIGRANTES

El 3 de diciembre, mientras el presidente del gobierno de Navarra, Miguel Sanz, entregaba en solemne acto la medalla de oro de esta comunidad a los sindicatos UGT y CCOO y a la Confederación de Empresarios de Navarra "en reconocimiento a su leal colaboración y su apuesta por la concertación social", en el exterior, ELA, LAB, CGT y STEE-EILAS se concentraron contra una ceremonia que calificaron como "una de las páginas más negras y vergonzosas en la historia del movimiento obrero de Navarra".

Bajo el lema *Que se queden con su medalla, no la queremos. Gu, herriarekin bat* estos sindicatos calificaron de sarcasmo la entrega y subrayaron que Sanz premia un modelo de concertación social impuesto que se basa en la supeditación de los intereses de la clase trabajadora en beneficio de la patronal y la derecha navarra. Además, aseguraron que el momento elegido para proceder a la entrega de este premio, a una nueva escenificación de la paz social a la Navarra, no es casual, y que supone un agravio para los colectivos más perjudicados por el modelo económico actual.

Por ello, ELA, LAB, CGT y STEE-EILAS realizaron su particular entrega de la medalla de oro de Navarra homenajeando a Papeles y Derechos denontzat, Plataforma 8 de marzo e Iruñako Gazte Asanblada. Tres organizaciones que, cada una en su ámbito, (emigrantes, mujeres y jóvenes), trabajan por lograr una sociedad más justa. "Son los tres colectivos que más complicaciones tienen en el mundo laboral y las principales víctimas de la crisis".



Tal como afirmó en la lectura del comunicado final, Gorka Vierge, en nombre de ELA, "al margen de la Navarra oficial que está ahí dentro, existe una Navarra que está aquí en la intemperie, una tierra más rebelde compuesta por trabajadores que son amigos de los inmigrantes, de los jóvenes y de las mujeres y que lucha por mejorar las condiciones de vida de todos los navarros y navarras".

### Igor Eizagirre, secretario general de Zerbitzuak, critica la falta de voluntad negociadora de los responsables de BBK y Kutxa

# IMPROVISACIÓN AL SERVICIO DE INTERESES POLÍTICOS



**El pasado 28 de noviembre tuvieron lugar las asambleas de compromisarios para la fusión de la BBK y Kutxa, con un resultado que para algunos puede resultar sorprendente. Sí analizamos el proceso, tomando como referencia el modo como se han desarrollado los contactos con ELA, no nos sorprende el resultado. Según Igor Eizagirre, responsable de la federación de Zerbitzuak, "se planeó como un proyecto inamovible, acordado en sede política y que se había fraguado en función de intereses de distribución de poder político".**

**-¿Ha habido negociación con ELA?**

-Ya en la primera reunión que mantuvimos en julio quedó claro que el único objetivo que perseguían en las reuniones era obtener los votos necesarios para la fusión a dos, (y por supuesto contaban con nuestros votos, 2 de kutxa y 1 de BBK). Se nos planteó como un proyecto inamovible, acordado en sede política y que se había fraguado en función de intereses de distribución de poder político. Por el contrario, social y económicamente no se apreciaba ningún cambio en la orientación de las cajas.

Desde un primer momento mostramos nuestro desacuerdo en que la Vital se quedara fuera ( económica y socialmente incomprensible) y criticamos la orientación que se le daba a la fusión, basada más en cuota de mercado que en una función social, por lo que exigimos un mayor compromiso a favor de la vertebración económica y social de Euskal Herria.

ELA dejó claro ante las direcciones de BBK y Kutxa que si continuaban con el proyecto adelante nos correspondía poner encima de la mesa reivindicaciones laborales. Con ese objeto, ELA presentó un documento sobre las condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras directa o indirectamente afectados por la fusión.

**-¿Cuáles eran esas prioridades?**

-Exigimos poner límites a la precariedad y plantemos la homologación de las condiciones de trabajo; anular la discriminación y dobles escalas en el plano laboral de todos los trabajadores y trabajadoras afectados por la fusión; la limitación de la utilización abusiva de subcontratas y empresas de servicio, que supone la desregulación y degradación de las condiciones laborales, y la garantía de un salario mínimo para los trabajadores y trabajadoras de las subcontratas y empresas de servicio y empresas participadas.

El resultado de estas negociaciones fue, como se podía prever tras lo ocurrido en los meses previos, muy decepcionante. En una reunión celebrada a principios de noviembre quedó muy patente la nula voluntad de llegar acuerdos con ELA.

**-El ámbito de negociación fue otra de las reivindicaciones de ELA.**

-Efectivamente, tampoco aceptan el ámbito vasco, porque desde un punto de vista empresarial es más caro y, con la representación sindical existente en ese ámbito, tienen muchas más dificultades para hacer lo que se les antoja. Los marcos estatales de negociación están hechos al servicio de un sindicalismo que vive muy cómodo y de una patronal que no quiere una negociación real.

**-¿Cuál será la postura de ELA, ante las manifestaciones recientemente efectuadas por distintos responsables políticos en relación a una fusión a tres?**

-Tras el fracaso de la fusión y ante las manifestaciones efectuadas por los responsables políticos en relación a una fusión a tres, desde ELA tenemos que manifestar que las reivindicaciones laborales antes expuestas, se volverían a poner encima de la mesa laboral al objeto de homologar las condiciones de los trabajadores afectados directa o indirectamente, así como el marco vasco propio de negociación colectiva.

*"Kutxa eta BBK-ko zuzendaritzek ez dute negoziatzeko benetako borondaterik izan"*

# "LANGILEOK EZ DUGU ETAREN INONGO BEHARRIK"

ELAk gaitzetsi egiten du abenduaren 3an Azpeitian gertatu zen Inazio Uria Mendizabal enpresario gipuzkoarraren hilketa, eta bere dolumina eta elkartasuna adierazi nahi die bere senide eta lagunei.

Euskal gizarteak honelako ekintzak arbuiatu egiten ditu, izan ere ondorioak samina, etsipena eta amorrua besterik ez baitira. ETAk behin betiko baztertu behar du estrategia hau. Gainera, bide horretatik tematzea, oraingoan enpresaburu baten bizitzaren aurka, euskal langileen interesen kalterako besterik ez da; kalte egiten digu ere gure herrian sakoneko aldaketa politiko nahiz sozialak eragin nahi ditugun guztioi.

Ezin da onartu, bestalde, iraganean –edo etorkizunean– honelako ekintzak beste azpiegitura eredu baten aldeko borroka sozialen aitzakiaz egitea; gaurkoa AHT litzateke. Borroka hauetan dihardutenek ez dute behar, eta ez dute eskatu, biolentzia erabiltzerik, eta ez dute horrelakorik justifikatzen. Aitzitik, armek dinamika hauek zikindu egiten dituzte. Hilketa berez gaitzestekoa da, eta aipatutako arrazoiak medio gurean garatzen ari diren herritarren borroketan ETAren aldetik onartu ezineko esku hartzea adierazten du.

Inazio Uriaren hilketa salatzen ELAk kontzentrazioa egin zuen abenduaren 4ean, Altuna y Uria enpresaren egoitzaren aurrean. Kontzentrazioaren helburua atentatua gaitzetsi eta Uriaren senideei eta lagunei elkartasuna adieraztea izan zen.




**www.ela-sindikatua.org**

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela-sindikatua.org**